[Cast/Eusk] Gudari Eguna 2016

AURRERANTZ :: 24/09/2016

Hacemos un llamamiento a salir a la calle a reivindicar en pueblos y barrios la viva memoria de lucha de nuestros gudaris

Castellano

A cuarenta y un años vista de los fusilamientos de los militantes revolucionarios vascos Juan Paredes Manot y Ángel Otaegi, junto a los militantes antifascistas José Luis Sánchez Bravo, Ramón García Sanz y Humberto Baena rendimos nuestro homenaje a todos y todas las que han dado su vida en la lucha por la libertad de una Euskal Herria libre de cualquier opresión. Desde diferentes atalayas nos están diciendo que después de los casi sesenta años de lucha del Pueblo Trabajador Vasco y de los duros años de crisis la situación está mejorando y que la mejor opción para las clases populares es la de avanzar en la normalización democrática. Insisten en que la mejor manera de superar la falta de voluntad de los Estados de solucionar el «conflicto» es la del fortalecimiento institucional en el que mediante la confrontación democrática se puedan superar los llamados «déficits democráticos».

La historia de Euskal Herria nos muestra que, a pesar de la forma de gobierno que la burguesía haya adoptado para asegurar su tasa de ganancia y su primacía, no ha habido forma de participación posible por
parte de las clases populares; que esos mal llamados «déficits» por la socialdemocracia esconden formas brutales de opresión, en su mayor parte violentas; y que lo que mayor terror le ha causado a la burguesía es el pueblo que se organiza y esta dispuesto a luchar incluso dando la vida.

Como pueblo, clase y género seguimos sufriendo en diversas formas la explotación y la opresión, y plantear que la salida es la tan cacareada «normalización» supone una línea contrarevolucionaria, es una línea que
continuamente engaña al pueblo, que lo pacifica ante la violencia opresora. Unas cadenas de oro en contra de la construcción de una Euskal Herria independiente, socialista y feminista por la que han dado la vida
nuestros gudaris. Ya nos lo advirtió Romain Rolland en 1789: «…y es que cuando el orden es injusticia, el desorden es ya un comienzo de justicia…»

La lucha por la amnistia es una forma de recoger este testigo.
Honremos a nuestros gudaris luchando por sacar de la cárcel a los que todavía están en ella y luchando porque vuelvan los que han visto obligados a
salir de Euskal Herria, de su pueblo. Las luchadoras y luchadores vascos han luchado contra toda injusticia, en todo momento y en cualquier lugar. Al enemigo no se le puede destruir normalizándonos, pacificándonos y aceptando sus leyes. La única manera de que no suframos la violencia de estas dictaduras de las burguesías española y francesa, junto con sus variantes vascas, aunque disfrazadas de democracia, es retomar el testigo de la lucha de

decenios del pueblo organizado con sus gudaris a la cabeza, muchos de los cuales siguen en la cárcel, huidos o exiliados.

Hacemos un llamamiento a salir a la calle a reivindicar en pueblos y barrios la viva memoria de lucha de nuestros gudaris. A encender pebeteros, a movilizarse. A continuar con las discusiones y debates de
este y otros textos. La construcción de la Organización Socialista Revolucionaria Vasca de Liberación Nacional está comenzando, animamos a todos los sectores y militantes a activarse y a contribuir en este
proceso.

Gora eusko gudariak!

Amnistia eta Askatasuna!

Sozialismoa eta independentzia!

Euskera

José Luis Sánchez Bravo, Ramón García Sanz eta Humberto Baena militante antifaxistekin batera, Juan Paredes Manot eta Angel Otaegi euskal militante iraultzaileak fusilatu zituztenetik berrogeita bat urte pasa diren honetan, zapalkuntza oro gainditu eta Euskal Herri aske baten aldeko borrokan euren bizitza eman duten guztiak omendu nahi ditugu.

Euskal Herri Langilearen ia hirurogei urteko borrokaren ostean eta krisi urte latzak pasa eta gero egoera hobetzen ari dela entzuten dugu talaia ezberdinetatik; herri klaseentzako aukerarik onena normalizazio demokratikoan aurrera egitea dela entzuten dugun bezala. Behin eta berriro esaten digute «gatazka» konpontzeko Estatuen borondate eza gainditzeko erarik onena indartze instituzionala dela; konfrontazio demokratikoaren bidez «defizit demokratikoak» deiturikoak gaindituko dituena.

Euskal Herriko historiak erakusten digu herri klaseen parte hartzea ez dela posible izan, edozein izan delarik ere burgesiak bere irabazi tasa eta nagusitasuna ziurtatzeko erabilitako gobernu mota; sozialdemokraziak maltzurki «defizit» deituriko horiek zapalkuntza era basatiak ezkutatzen dituztela, bortitzak gehienak; eta burgesia gehien ikaratzen duena bere bizitza emateraino borrokatzeko prest dagoen herri antolatua dela.

Herri, klase eta genero bezala esplotazio eta zapalkuntza modu asko pairatzen jarraitzen dugu. Eta egoera honetan irtenbidea hainbatetan famatutako «normalizazio» dela mahaiganeratzea kontrairaultzailea da. Herriari etengabe iruzur egiten dion diskurtsoa da; bortizkeri zapaltzailearen aurrean herria baketzen duena. Gure gudariek euren bizitza emateraino borrokatu duten Euskal Herri independente, sozialista eta feminista baten eraikuntzaren aurkako urrezko kateak. Romain Rolland-ek 1789an esan zuen bezala: «…ordena bidegabekeria denean, desordena justiziaren hasiera da…»

Amnistiaren aldeko borroka lekuko hau hartzeko era bat da. Gure gudariak omendu ditzagun oraindik kartzeletan dauden gudariak ateratzen eta euren herritik, Euskal Herritik, alde egitera behartuak izan direnen sorterriratzearen aldeko borrokan murgiltzen.

Euskal gudariek bidegabekeri ororen aurka borrokatu dute, beti eta edozein lekutan. Ezin dugu etsaia deuseztatu geure burua normalizatuz, baketuz eta bere legea onartuz. Egunero pairatzen dugu demokraziaz mozorrotutako burgesia espainol eta frantsesaren diktaduren bortizkeria, euren euskal aldaerak ahaztu gabe noski. Eta bortizkeria guzti hau ez pairatzeko bide bakarra herri antolatuaren hamarkadetako borrokaren lekukoa berrartzea da; bere gudariak buruan izan dituen borrokaren lekukoa, asko eta asko kartzeletan, ihesean edo erbestean jarraitzen duten gudariena.

Kalera atera eta gure herri eta auzoetan gure gudarien borrokaren oroimen bizia aldarrikatzera dei egiten dugu; pebeteroak piztera, mobilizatzera; testu honen eta beste batzuen eztabaidekin jarraitzera.

Askapen Nazionalerako Euskal Erakunde Sozialista eta Iraultzailearen eraikuntza hasten ari da. Sektore eta militante oro aktibatzera eta prozesu honetan parte hartzera animatzen dugu.

Gora eusko gudariak!

Amnistia eta Askatasuna!

Sozialismoa eta independentzia!

_____

https://eh.lahaine.org/cast-eusk-gudari-eguna-2016